

Transylvania argi iturri

Enbor nagusitik berezita bizi den europar nazio-adarrik handiena, Transylvania-ko magyartarrek osatzen dute ('Erdély' hungarieraz). Gogoan har, adibidez, Albania-tik at gelditu den Kossovo albaniarra (1.277.000 biztanle, 1981); edo-ta Suezia-tik at dagoen Suomi-ko sueziar multzoa (300.675 biztanle, 1980).

Austria-Hungria izeneko inperio bikuna 1918an suntsitzean, magyartarrak ere banatu zituzten Hungaria ofizialetik at. Milioi pare bat utzi zuten Errumania berriaren barruan (2.150.000 magyartar azken datu fidagarrienen arauera), eta beste milioi erditsu bat Jugoslavian (385.000 magyartar Voivodina-ko Probintzia Autonomoan, Serbian, eta 1981eko Erroldaren arauera).

Errumania-ko Ipar-Mendebaldean dago Transylvania, zabaleraz Estatuaren heren bat hartzen duelarik. Magyarta-

rrak gutxiengo dira Transylvania osoaren arauera (%30 inguru); gehiengoa, bi probintzian ez besteetan, errumaniarrak direlarik.

Hungariarrak gehiengoa diren lurraldean ('Szeklers' izeneko alderdian) "Hungariar Probintzia Autonomoa" lortu zuten mundu-gerratea amaitzean. Baina gero, 1956an hungariar anti-stalinistak Mosku-ren aurka altxa zirenean, Transylvania-ko magyartarrak beroegi agertu ziren Imre nagy-ren alde; eta honen frakasoaren ondoren hasi zen

Transylvanian 'errumaniartzte' politika; gero eta azkarkiago Bucuresti-tik bul-tzatua.

Guk hemendik Transylvania-ko arazo osoki garbitu nahi izatea arriskugarria litzateke; eta harrokeria gaitza ere bai. Balkanetako nazio-liskarrak, hau barne, biziki korapilotsuak direlako. Eta izari soziolinguistikoa besterik ez dugu begiratuko; nahiz hau gainerako aldagai guztiekin batuta gertatu.

Egoera soziolinguistikoa (1966)

Magyartarren kopurua zazpi probintzian da nabarmen; nahiz beste batzutan ere kontutan hartzeko modukoa izan (Suomi-ko neurkeraren arauera, adibidez).

Transylvania-ko Ekialdean, mendi-katearen inguruan, eta Errumania-ren erditsuan, 'Szeklers' eskualdea dugu; eta honetan magyartarrak dira nagusi (**lehenengo koadroan begira**).

Transylvania-ko kulturagune nagusia Cluj (H. Koloszvár) izanik, 300.000 bizilagun, eta laurdentsu bat hungariarra, hortxe gertatu da eskualdearen burmuina.

Ekonomiaren aldetik, bestalde, Szeklers eskualdea atzeratua izan da orain arte, eta herri koxkorrez osatua.

Irakaskuntzaren antolaketa

Hiru maila bereziko ditugu.

a) *Eskola maila*. Lehenengo urteeta-ko pluralismoa Buda-Pest-en ondoren alde batera utzirik, Bucuresti-ko gobernuak Transylvania-ren errumaniartzea bilatzen du deplauki.

Magyartar asko, esana dugunez, herri txikitan bizi da: 500/1.000 biztanle. Hots, 1973ko legeak ('barneko araudiek' ofizialki) hauxe agindu du: *hungariar* eskola bat zabaltzeko, *25 magyartar* haur behar direla gutxienez. Herri askotan, beraz, demografi arrazoiengatik, kopuru hori iritsi ezin, eta errumaniaraz eskolatu behar. *Errumaniar* eskolen zabalketa, noski, beti baita legez-



Errumaniak magyartarren kontra buruturiko politika gaitzesten du Bruselasen atzerritaruriko hungariar talde honek.




Transylvania: ethnic distribution

Based on 1966 census



585.2 Total county population in thousands



koa, inolako kopuru-baldintzarik gabe. Ondorioz, beraz, hungariera nagusi den herri askotan, errumanierazko eskola besterik ez dago.

b) *Lizeo maila.* Joera bereko aginduak eman ditu 1973ko legeak bigarren mailako lizeoei buruz: 36 hungariar ikasle bildu behar. Bestela errumanieraz. Magyartarrek kontzentrazio-eskoletan jarri zituzten beren begiak; baina 'gasolinik eza' dela-ta, debekatu egin zituen gobernuak (gogoan har, honi buruz, Ploiesti dela Europa-ko petrolio-puzurik oparoena).

Eta lizeoen bilakaera hau izan da, hungarieraz ikasten dutenei dagokienez (2. koadroa).

Ohar bat: eskola berean lerro hungariarra eta lerro errumaniarra batera gertatuz gero, eskola-burua errumaniarra izaten da; eta buru-ordea magyartarra.

c) *Unibertsitate maila.* Gerratearen ondoren, Cluj hiria bihurtu zen Transylvania-ko ikasgu nagusia. Eta bi unibertsitate paralelo zabaldu ziren: Bolyai izeneko, hungarieraz; eta Babes izeneko, errumanieraz.

“Bide seinale guztiak, haserako egoera aldatuz, gaur errumaniera hutsez daude”

Buda-pest-eko gertakarien ondoren, eta 'errumaniar nazio-sendimendua azkartzekotan', bi Unibertsitate elebakarrok, Bolyai-koa eta babes-ekoa, batzea erabaki zuen Bucuresti-ko gobernuak. Elkarketa gogoangarri hura ospatzekotan, hain zuzen, Ceaucescu bera etorri zen Cluj-ra (1959).

Handik piska batera, Ceaucescuk berak kritikatu izan ondoren, László Szabédi Bolyai-ko Errektoreak bere burua hil zuen. Elkarketa 'abertzale' hartan, Bolyai-ko Unibertsitatearen suntsiera somatu zuen Szabédik.

Eta xuxen igarri zuen etorkizuna. Hungariar ikasleen kopurua behera joan da; arrazoin 'praktiko'engatik karrera errumanieraz ikasten duten %20a aparte utzirik ere (3. koadroa).

Unibertsitate ikasleek errumanierara jotzen dute.

Azter dezagun orain Cluj-Koloszvár Unibertsitatearen bilakaera; 1958 (elkarketa aurretik) eta 1976 (elkarketa ondoren), irakaslegoak alderatuz (4. koadroa).

Errumanierazko irakasleagoa azkartu egin da, batzutan 4 eta 5 aldiz handiagoa izanik hungarierazkoa baino (5. koadroa).

Bide beretik, eta hezkuntza 'teknikoan', askoz ere klase gehiago ematen da gaur Cluj-en errumanieraz, hungarieraz baino:

Azkeneko erabaki bortitzak ahaztuta ere (eta gehiegi ahaztea da: 14.000 herri txikitako jendearen kaletartze bortxatua) prozesua garbi agertzen da zifra horietan.

Bi puntutxo erantsiko ditugu baka-rik: bata bide-seinale guztiak, haserako egoera aldatuz, gaur errumaniera hutsez daudela; eta bestea, Cluj-ko Idazleen Elkarteak, barruan dauden errumaniar elebakarrak direla-ta, errumaniera hutsez egiten dituela bere bile-
rak...

“Du déjâ vu”... Ez duzue uste?

TXILLARDEGI

KOADRO 1

Probintzia	Magyartar	Errumaniar
1— H. Hargita (R. Harghita)	248.886 bizt.	31.272 (%88,1)
2— H. Kovászna (R. Covasna)	140.472	34.099 (%79,4)
3— R.Mures (H. Maros)	249.657	278.386 (%44,5)

Oro har, 639.000 magyartar Szeklers-etan.

Eta beste lau probintzietan, gutxiengo garrantzitsua:

4— R. Satu Mare (H. Szátmár)	147.594 bizt.	203.386 (%41,1)
5— R. Bihor (H. Bihor)	192.948	377.837 (%32,9)
6— R. Cluj (H. Koloszvár)	164.768	457.169 (%26,1)
7— R. Salaj (H. Salaj)	63.850	194.790 (%24,3)

KOADRO 4

Irakasle kopurua bi hizkuntzetan

	Errumanieraz		Hungarieraz		Proporzioa (H / R)	
	1958	1976	1958	1976	1958	1976
Kimika	45	63	36	14	0,80	0,22
Legeak	18	23	15	4	0,83	0,17
Ekonomia	23	76	15	19	0,65	0,24
Matemat.	31	51	19	14	0,61	0,27
Fil.Hist.	29	20	14	7	0,48	0,35

KOADRO 2	1955—1956	1974—1975
2. mailako eskolak	%8,0	%5,5
Eskola teknikoak	%6,1	%1,4

KOADRO 5

klase kopurua	R	H
1973—1974	174	2
1976—1977	192	9

KOADRO 3

Ikasle kopurua (Errumania osoan)	Magyartarrak		Errumaniarrak oro	
	Kopurua	%	Kopurua	%
1957—1958	5.500	10,75	51.094	100
1974—1975	6.188	5,7	108.750	100